



ALTSASUKO HAUR HEZKUNTZAKO (LEHEN ETA BIGARREN ZIKLOAK), LEHEN HEZKUNTZAKO, BIGARREN HEZKUNTZAKO, BATXILERGOKO ETA LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEEI (PUBLIKOAK, HITZARTUAK ETA DIRUZ LAGUNDUTAKOAK) ETA GURASO-ELKARTE NAHIZ GURASOEN IRAKASKUNTZA-KOOPERATIBEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

1.-. Xedea

Altsasuko ikastetxeei zuzenduriko udal ekintzak diruz lagundu daitezkeen lau lerro edo kontzeptu biltzen ditu, honako hauek: **Esperientzia berritzaileak bultzatzen dituzten hezkuntza-proiektuetarako dirulaguntza; hezkuntza-materiala hobetzeko programetarako dirulaguntza; eskolaz kanpoko euskarazko jardueren gastuetarako dirulaguntza; eta, azkenik, euskarazko jarduerak, esparru akademikotik kanpo egiten direnak eta A, B eta D ereduetako ikasleei zuzenduta daudenak.**

Dirulaguntza jaso dezakeen lehen kontzeptuari dagokionez, udalaren dirulaguntza hori ikastetxeek prestatutako ekimen hezigarrien finantziarioa laguntzeko sortu da, betiere ekimen horiek hezkuntza-eskaintzaren eta zerbitzuen kalitatea nahiz trukeak sustatzeko eta hiritarrek baliabideen aprobetxamendua eta partaidetza bultzatzeko antolatzen badira.

Diruz lagundu daitezkeen bigarren kontzeptuari dagokionez, haren xedea da hezkuntzarako erabiltzen den eskola-materiala hobetzea. Horretarako, materiala berri egin beharko dute ikastetxeek, irakasleen eta ikasleen errendimendua hobetze aldera.

Diruz lagundu daitezkeen hirugarren kontzeptua euskarazko eskolaz kanpoko jardueresortutako gastuak dira, eta xedea da laguntza ekonomikoa ematea beste pertsona fisiko eta/edo juridikoek, publikoek eta/edo pribatuek bere gain hartzen ez dituzten gastuak ordaintzen laguntzea, jarduera horiek ahalik eta hobekien egitea bermatzeko.

Azkenik, diruz lagundu daitezkeen laugarren kontzeptu bat jasotzen da, eremu akademikotik kanpoko euskarazko jardueretarako. Helburua da Administrazioak eskola-eremuan euskara sustatzen laguntzea, jarduera ez-akademikoen bidez.

2. Diruz laguntzen ahal diren kontzeptuak.

1. taldea.

Ikastetxeetan esperientzia berritzaileak bultzatzen dituzten proiektuak, baldin eta lan egiteko modu berrietara bideratuta badaude. Proiektu horiek 2023/2024 ikasturtean gauzatu behar dira.



2. taldea.

Hezkuntzan erabiltzeko eskola-materiala berritzeko programak, material hori hobetzea xede dutenak. Proiektu horiek 2023/2024 gauzatu behar dira.

3. taldea.

2023/2024 ikasturtean euskaraz egindako eskolaz kanpoko jarduerak sortutako gastuak. 4. taldea.

4. taldea.

Esparru akademikotik kanpo A, B eta D ereduetako ikasleei zuzendutako jarduerak eragindakogastuak. Jarduera horiek 2023/2024 ikasturtean gauzatu behar dira.

Deialdi honen bidez, honako eremu akademikoetakoren batean euskararen erabilera sustatzekoberariaz egindako euskarazko jarduerak lagunduko dira diruz:

- Ikaslearen etxearen eta ikastetxearen arteko autobus-ibilbideetan.
- Ikastetxearen autobus-inguruetan, sartzeko eta irteteko orduetan.
- Aisialdirako guneetan.
- Ikastetxeko korridore eta eskaileretan, sartzeko, irteteko eta klasez aldatzeko orduetan.
- Jantokian (bazkaltzeko orduetan eta atsedeen-denboran).
- Euskararen Nazioarteko Egunean (abenduak 3) egindako jarduerak, herritar guztientzat.

3. Araudi aplikagarria

Oinarri hauek gobernatuko dituzte dirulaguntza horiek ematea eta emailearen eta entitate onuradunaren arteko harreman juridikoa. Oinarri hauetan xedatzen ez den guztirako 38/2003 Legea, Diru-laguntzei buruzko Orokorra, eta Altsasuko Udalaren diru-laguntzen esleipena arautzen duen ordenantza aplikatuko dira (96 zenbakidun NAOn argitaratu zen, 2004ko abuztuaren 11n eta haren aldaketa 10 zenbakidun NAOn , 2010eko urtarrilaren 22an).

4. Pertsona onuradunak

Hauek izan daitezke diru-laguntzen onuradunak:



1. taldea.

- Haur Hezkuntzako (lehen eta bigarren zikloa), Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikastetxe guztiak, bai publikoak, bai hitzartuak, baita dirulaguntza jasotzen dutenak ere.
- Gurasoen elkarteak eta gurasoen irakaskuntza-kooperatibak. Baldintzak:

Deialdira aurkeztutako hezkuntza-proiektuak zentro onuradunak sortu eta gauzatu beharkoditu.

Entitate onuradunak nortasun juridiko propioa eta udalarenetik bereizia izango du, udaladirulaguntza ematen duen entitatea baita.

2. taldea.

- Haur Hezkuntzako (lehen eta bigarren zikloa), Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikastetxe guztiak, bai publikoak, bai hitzartuak, baita dirulaguntza jasotzen dutenak ere.
- Gurasoen elkarteak eta gurasoen irakaskuntza-kooperatibak.

Baldintzak: Eskola-materiala hobetzeko programen kasuan, ikastetxeek material hori hobetzerabideratutako urteko zenbatekoa egiaztatu beharko dute.

Entitate onuradunak nortasun juridiko propioa eta udalarenetik bereizia izango du, Udala dirulaguntza ematen duen entitatea baita.

3. taldea.

- Haur Hezkuntzako (lehen eta bigarren zikloa), Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikastetxe guztiak, bai publikoak, bai hitzartuak, baita dirulaguntza jasotzen dutenak ere.
- Gurasoen elkarteak eta gurasoen irakaskuntza-kooperatibak.

Entitate onuradunak nortasun juridiko propioa eta udalarenetik bereizia izango du, udaladirulaguntza ematen duen entitatea baita.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

4. taldea.

- Haur Hezkuntzako (lehen eta bigarren zikloa), Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikastetxe guztiak, bai publikoak, bai hitzartuak, baita dirulaguntza jasotzen dutenak ere.
- Gurasoen elkarteak eta gurasoen irakaskuntza-kooperatibak.

Entitate onuradunak nortasun juridiko propioa eta udalarenetik bereizia izango du, udaladirulaguntza ematen duen entitatea baita.

Kasu guztietan:

Ikastetxeek eta elkarteek egoitza eta ekintza-esparrua Altsasun izan beharko dute.

Entitate onuradunek udalak berdintasunean heztea edo hezkidetzeari bultzatzeko antolatzen dituen programetan parte hartu dutela egiaztatzea beharko dute. Horren frogarik ez badute, entitate onuradunek programa horietan parte hartzeko konpromisoa espresuki adierazi beharko dute.

Norbanakoek eta erakundeek ezingo dute dirulaguntzarik jaso, baldin eta Altsasuko Udalarekin edo haren mendeko erakunde autonomoekin nahiz entitateekin zorretan daudela- eta premiamendu bidez ordainarazteko prozeduretan hasita badaude, ezta ere udalarekiko zerga-obligazioak ordaintzeke izanez gero ere, harik eta zor horiek, benetan, ordaindu eta kitatzen dituzten arte; salbuespen bakarra izango da zorrak geroratu edo epeka ordaintzeko izatea edo haiek ordainarazteko prozesua bertan behera utzita egotea. Zerga-betebeharrak (Ogasuna eta Udal Zerga Biltegia) eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeke, hori adierazten duten ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak, eskabidearekin batera. Aipatu ziurtagiriak sei hilabetez izango dira baliodunak ematen direnetik aurrera. Halaber, azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Diru-laguntzei buruzko Orokorra, eta Altsasuko Udalaren diru-laguntzen esleipena arautzen duen ordenantza aplikatuko da (96 zenbakidun NAO n argitaratu zen, 2004ko abuztuaren 11n eta haren aldaketa 10 zenbakidun NAO n, 2010eko urtarrilaren 22an).



5. Diru kopurua

15.000,00 euroko zuzkidura aurreikusi da 1 3239 4820002 "Altsasuko ikastetxeentzako dirulaguntzen deialdia" partidaren kargura. Partida hori Udalaren 2023ko Aurrekontu Orokorrean sartuta dago.

Dirulaguntzen banaketa.

Horniketa ekonomiko guztia diruz lagundu daitezkeen kontzeptu guztien artean banatuko da:

1. taldea: 5.000,00€

Talde honi atxikitako zenbatekoa onartutako eskaeren artean banatuko da, honela:

- Heren bat onartutako eskabide guztien artean hainbanatuko da.
- Heren bat proiektuaren kalitatearen arabera banatuko da.

Honako hauek baloratuko dira:

- a) Gaitasuna izatea parte-hartzaileen garapen integralean eragiteko eta ikasleen hezkuntza-prozesuaren garapenean laguntzeko (5 puntu).
- b) Proiektuaren egokitzapena —behar bezala garatua— helburu d(it)uen talde(et)an egon daitezkeen behar bereziko ikasleen beharrei erantzuteko (2 puntu).
- c) Eskola-komunitateko sektore guztien parte-hartzea proiektuaren fase guztietan (2 puntu).
- d) Koordinazio pedagogikoa egotea —behar bezala garatua— proiektuaren fase guztietan (2 puntu).
- e) Emakume eta gizonen arteko berdintasun-printzipioari arreta berezia eskaintzea curriculumetan eta hezkuntza-etapa guztietan.
- f) Emakumeen bereizkeria eragiten duten jarrera, eduki eta estereotipo sexistak ezabatzeko eta arbuizatzeko proiektuetan aurreikusitako neurriak, bereziki, testu-liburuei eta hezkuntza- materialei dagokienez (2 puntu).
- g) Emakumeek historian izan duten garrantzia aitortzea eta irakastea xede duten hezkuntza- neurriak ezartzea.

Dirulaguntza proiektu horietako bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera banatuko da puntuazio altuena lortu dutenen artean, betiere formula honi jarraikiz:



Banakako proiektuaren puntuazioa x

100 Proiektuen puntuazioak guztira

Bi eskaerak azken puntuazio bera badute, a) balorazio-irizpidearen atalean puntuazio altuena lortzen duena lehenetsiko da.

- Heren bat proiektuak ukitutako pertsona kopuruaren arabera banatuko da.

Ikastetxe bakoitzak aurkeztutako aurrekontuaren %70ko dirulaguntza emango da gehienez ere.

Hasierako aurrekontuan erakundeak berak ehunekoren bat finantzatuko duela agertuz gero, ehuneko horri eutsi beharko zaio azken justifikazioan, eta egin beharreko doikuntzak egiteko erabiliko da. Dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa doitzeko, hala badagokio, erreferentziazkoa izango da erakunde eskatzaileak aurkeztutako jarduera- aurrekontua. Horrela, hasierako aurrekontuan jarduera finantzatzeko zenbatekoan dirulaguntzak osatzen duen ehuneko izango da gehienez ordaindu beharreko ehuneko jardueraren behin betiko kostuan.

Dirulaguntza honela ordainduko da:

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren %60 erakunde eskudunak laguntza ematea erabakitzen duenean. Gainerako %40a (likidazioa) dirulaguntza justifikatzeko eskaturikodokumentuak aurkezten direnean.

2. taldea: 7.000,00€

Esleitutako kopurua ikastetxean 2023/2024 ikasturtean matrikulatutako ikasle kopuruaren arabera banatuko da. Ikastetxe bakoitzak aurkeztutako aurrekontuaren %70eko dirulaguntza emango da gehienez ere.

Hasierako aurrekontuan erakundeak berak ehunekoren bat finantzatuko duela agertuz gero, ehuneko horri eutsi beharko zaio azken justifikazioan, eta egin beharreko doikuntzak egiteko erabiliko da. Dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa doitzeko, hala badagokio, erreferentziazkoa izango da erakunde eskatzaileak aurkeztutako jarduera- aurrekontua. Horrela, hasierako aurrekontuan jarduera finantzatzeko zenbatekoan dirulaguntzak osatzen



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

duen ehunekoa izango da gehienez ordaindu beharreko ehunekoa jardueraren behin betikokostuan.

Dirulaguntza honela ordainduko da:

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren %60 erakunde eskudunak laguntza ematea erabakitzen duenean. Gainerako %40a (likidazioa) dirulaguntza justifikatzeko eskaturikodokumentuak aurkezten direnean.

3. taldea: 2.000,00€

Talde honi atxikitako zenbatekoa onartutako eskaeren artean banatuko da, honela: Heren bat zati berdinetan banatuko da aurkeztutako eskaeren artean; heren bat jarduerak eragindako pertsonen kopuruaren arabera banatuko da; heren bat proportzionalki banatuko da aurkeztutako gastuen arabera.

Ikastetxe bakoitzak aurkeztutako aurrekontuaren %70eko dirulaguntza emango da gehienez ere.

Hasierako aurrekontuan erakundeak berak ehunekoren bat finantzatuko duela agertuz gero, ehuneko horri eutsi beharko zaio azken justifikazioan, eta egin beharreko doikuntzak egiteko erabiliko da. Dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa doitzeko, hala badagokio, erreferentziatzekoa izango da erakunde eskatzaileak aurkeztutako jarduerak aurrekontua. Horrela, hasierako aurrekontuan jarduera finantzatzeko zenbatekoan dirulaguntzak osatzen duen ehunekoa izango da gehienez ordaindu beharreko ehunekoa jardueraren behin betiko kostuan.

Emandako dirulaguntza azaldutako epean egindako eskola-jarduerak eta eskolaz kanpoko jarduerak eragindako gastuak ordaintzeko erabiliko da. Dirulaguntza honela ordainduko da: Dirulaguntza honela ordainduko da:

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren %60 erakunde eskudunak laguntza ematea erabakitzen duenean. Gainerako %40a (likidazioa) dirulaguntza justifikatzeko eskaturikodokumentuak aurkezten direnean.

4. taldea: 1.000,00€

Talde horri esleitutako zenbatekoa honako irizpide hauen arabera banatuko da:

-. Jarduera ikastetxeko Hizkuntza Normalkuntzako Planean sartzea: 45 puntu



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

- Jardueraren kalitatea, originaltasuna eta izaera berritzailea: 25 puntu
- Autofinanziazio-maila: 10 puntu
- Lankidetzeta-lana beste erakunde batzuekin: 20 puntu

Ikastetxe bakoitzak aurkeztutako aurrekontuaren %70ko dirulaguntza emango da gehienez ere.

Hasierako aurrekontuan erakundeak berak ehunekoren bat finantzatuko duela agertuz gero, ehuneko horri eutsi beharko zaio azken justifikazioan, eta egin beharreko doikuntzak egiteko erabiliko da. Dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa doitzeko, hala badagokio, erreferentziazkoa izango da erakunde eskatzaileak aurkeztutako jarduera-aurrekontua. Horrela, hasierako aurrekontuan jarduera finantzatzeko zenbatekoan dirulaguntzak osatzen duen ehunekoak izango da gehienez ordaindu beharreko ehunekoak jardueraren behin betiko kostuan.

Emandako dirulaguntza azaldutako epean egindako euskarazko jarduerak eragindako gastuak ordaintzeko erabiliko da.

Dirulaguntza honela ordainduko da:

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren %60 erakunde eskudunak laguntza ematea erabakitzen duenean. Gainerako %40a (likidazioa) dirulaguntza justifikatzeko eskaturikodokumentuak aurkezten direnean.

6. Eskaerak eta dokumentazioa

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea, 1., 2., 3. eta 4. taldeentzat:

Eskaerak aurkezteko epea 2023ko abenduaren 10n amaituko da.

1. taldea.

Ikastetxeetan esperientzia berritzaileak bultzatzen dituzten proiektuak, baldin eta lan egiteko modu berrietara bideratuta badaude. Proiektu horiek 2023/2024 ikasturtean gauzatu behar dira.

Proiektu bakoitzerako aurkeztu beharreko dokumentazioa:



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

- a) Laguntza eskatzen duen proiektua deskribatzen duen inprimakia. Inprimaki bat diruz lagundu nahi den proiektu bakoitzeko.
- b) Aurkeztutako proiektuaren aurrekontua.
- c) Zergak (Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa) eta Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean edukitzea egiaztatzen duen ziurtagiria.

2024ko ekainaren 28a baino lehen (azken hori barne) honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Memoria bat, gauzatutako proiektua azalduko duena. Hartan agertzen diren datuak sexuaren arabera bereizita egongo dira eta hizkuntza inklusiboa erabili beharko da (proiektu bakoitzeko Memoria bat).

- Proiektua garatzeak eragindako gastuak justifikatu beharko dira. Horretarako, gastuen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, jatorrizkoak edo, halakorik izan ezean, fotokopia konpultsatuak. Fakturretan entitate ordaintzailea, gastuaren data, kontzeptua, zenbatekoa, ordaintzen duen enpresaren izena (NAN edo IFZ), zigilua eta igorlearen data zehaztu beharko dira, eta 2023/2024 ikasturtean egindako gastuenak izango dira ezinbestean.

Dirulaguntza eskatzen duen proiektuak edo programak jasotako laguntza ekonomikoak adierazten dituen ziurtagiria, jaso baldin baditu, kontuan hartu gabe pertsona fisikoek edo juridikoek, publikoek nahiz pribatuek, eman dituzten. Ziurtagiririk eduki ezean, zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, ekarpen ekonomikorik ez dela egon adieraziko duena.

d) Entitate onuradunek aurkeztutako dokumentazioan hizkuntza ez-sexista erabiliko da, eta informazio guztiak sexuen arabera bereizita egon beharko du.

2. taldea.

Hezkuntzan erabiltzeko eskola-materiala berritzeko programak, material hori hobetzea xede dutenak. Proiektu horiek 2023/2024 gauzatu behar dira.

Ekimen bakoitzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- a) Laguntza eskatzen duen programa deskribatzen duen inprimakia. Inprimaki bat diruz lagundu nahi den programa bakoitzeko.



- b) Aurkeztutako programaren aurrekontua.
- c) Zergak (Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa) eta Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean edukitzea egiaztatzen duen ziurtagiria.

2024ko ekainaren 28a baino lehen (azken hori barne) honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Memoria bat, gauzatutako pro azalduko duena. Hartan agertzen diren datuak sexuaren arabera bereizita egongo dira eta hizkuntza inklusiboa erabili beharko da (programa bakoitzeko Memoria bat).
- Proiektua garatzeak eragindako gastuak justifikatu beharko dira. Horretarako, gastuen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, jatorrizkoak edo, halakorik izan ezean, fotokopia konpultsatuak. Fakturretan entitate ordaintzailea, gastuaren data, kontzeptua, zenbatekoa, ordaintzen duen enpresaren izena (NAN edo IFZ), zigilua eta igorlearen data zehaztu beharko dira, eta 2022/2023 ikasturtean egindako gastuenak izango dira ezinbestean.
- Dirulaguntza eskatzen duen proiektuak edo programak jasotako laguntza ekonomikoak adierazten dituen ziurtagiria, jaso baldin baditu, kontuan hartu gabe pertsona fisikoek edo juridikoek, publikoek nahiz pribatuek, eman dituzten. Ziurtagiririk ez badute, zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, ekarpen ekonomikorik ez dela egon adieraziko duena.

3. taldea.

2023/2024 ikasturtean euskaraz egindako eskolaz kanpoko jarduerak sortutako gastuak.

Jarduera bakoitzerako aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- a) Laguntza eskatzen duen proiektua deskribatzen duen inprimakia. Inprimaki bat diruz lagundu nahi den jarduera bakoitzeko.
- b) Aurkeztutako jardueraren aurrekontua.
- c) Zergak (Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa) eta Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean edukitzea egiaztatzen duen ziurtagiria.



2024ko ekainaren 28a baino lehen (azken hori barne) honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- . Memoria bat, egindako jarduera azalduko duena. Hartan agertzen diren datuak sexuaren arabera bereizita egongo dira eta hizkuntza inklusiboa erabili beharko da (Memoria bat jarduera bakoitzeko).
- . Proiektua garatzeak eragindako gastuak justifikatu beharko dira. Horretarako, gastuen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, jatorrizkoak edo, halakorik izan ezean, fotokopia konpultsatuak. Fakturretan entitate ordaintzailea, gastuaren data, kontzeptua, zenbatekoa, ordaintzen duen enpresaren izena (NAN edo IFZ), zigilua eta igorlearen data zehaztu beharko dira, eta 2023/2024 ikasturtean egindako gastuenak izango dira ezinbestean.
- . Dirulaguntza eskatzen duen proiektuak edo programak jasotako laguntza ekonomikoak adierazten dituen ziurtagiria, jaso baldin baditu, kontuan hartu gabe pertsona fisikoek edo juridikoek, publikoek nahiz pribatuek, eman dituzten. Ziurtagiririk ez badute, zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, ekarpen ekonomikorik ez dela adieraziko duena.

4. taldea.

Esparru akademikotik kanpo A, B eta D eredu-tako ikasleei zuzendutako jarduerak eragindako gastuak. Jarduera horiek 2023/2024 ikasturtean gauzatu behar dira.

Proiektu bakoitzerako aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- a) Laguntza eskatzen duen proiektua deskribatzen duen inprimakia. Inprimaki bat jarduera bakoitzeko.
- b) Aurkeztutako jardueraren aurrekontua.
- c) Zergak (Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa) eta Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean edukitzea egiaztatzen duen ziurtagiria.



2024ko ekainaren 28a baino lehen (azken hori barne) honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Memoria bat, egindako jarduera azalduko duena. Hartan agertzen diren datuak sexuaren arabera bereizita egongo dira eta hizkuntza inklusiboa erabili beharko da (Memoria bat jarduera bakoitzeko).
- Proiektua garatzeak eragindako gastuak justifikatu beharko dira. Horretarako, gastuen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, jatorrizkoak edo, halakorik izan ezean, fotokopia konpultsatuak. Fakturretan entitate ordaintzailea, gastuaren data, kontzeptua, zenbatekoa, ordaintzen duen enpresaren izena (NAN edo IFZ), zigilua eta igorlearen data zehaztu beharko dira, eta 2023/2024 ikasturtean egindako gastuenak izango dira ezinbestean.
- Dirulaguntza eskatzen duen proiektuak edo programak jasotako laguntza ekonomikoak adierazten dituen ziurtagiria, jaso baldin baditu, kontuan hartu gabe pertsona fisikoek edo juridikoek, publikoek nahiz pribatuek, eman dituzten. Ziurtagiririk ez badute, zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, ekarpen ekonomikorik ez dela egon adieraziko duena.

Kasu guztietan:

Eskabideak udaleko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira, edota Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean aurreikusitako beste edozein tokitan.

7. Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesdunei bost eguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, zuzendu dezaten. Emandako epea igarotakoan akatsak zuzentzen ez badira, eskaeran atzera egin dutela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritako moduan ebazpena eman ondoren.

8. Izapideak eta proposamenak.

Aurkeztutako eskabideak ebaluatzeko batzorde bat ezarriko da. Batzorde hori Osasun, Hezkuntza eta Gizarte Ongizateko Batzordeko kideek osatuko dute, eta, hala badagokio, idazkaritzak eta kontu-hartzaileak aholkatuko dute. Organo horrek ofizioz egingo ditu ebazpen-proposamena formulatzeko behar diren datuak zehaztu, ezagutu eta



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

egiazatzeko egoki irizitako jarduketa guztiak. Beharrezkotzat jotzen dituen txosten guztiak eskatu ahal izango ditu.

9. Ebazpena

Ebaluazio-batzordeak eskabideak ebaluatu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrari ebazpen-proposamena egingo dio, ebazteko eskumena duen organoa den aldetik.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 87. eta 88. artikuluetan ezarritakoa betetzeko, Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak erabakia hartu eta jendaurrean jarriko du, honako alderdi hauek adieraziz: onuradunen zerrenda, jaso beharreko zenbatekoak, ukatutako eskabideak eta haiek baztertzeko arrazoiak. Ebazpen horren aurka legeak aurreikusitako errekurtsioak jarri ahal izango dira.

10. Beste dirulaguntza batzuk jasotzea

Deialdi honi jarraikiz, Udalak emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ez du inolaz ere erakunde onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua gaindituko, ez berak bakarrik, ezta bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarra edo baliabideekin batera ere.

11. Publizitatea

Emandako dirulaguntzen zerrenda, onuradunak eta zenbatekoak adieraziz, udalaren web-orrian argitaratuko da, baita udaleko iragarki-taulan ere.

12. Betebeharrak ez betetzea

Oinarri hauetan edo dirulaguntzak emateko orduan xedatzen diren betebeharrak betetzen ez badira, eman izana berraztertu egingo da. Dirulaguntzak itzultzeko prozedura Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Foru Legean xedatutakoak arautuko du. Era berean, zigor-prozedurak aipatu Legeak xedatutakoa bete beharko du.

13. Errekurtsioak.

Oinarri hauek onartzeko administrazio-egintza honen kontra honako errekurtsio hauek aurkeztu ahal izango dira, aukeran:



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

- BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA, deialdia onartu duen organo eskudunari, oinarri hauek argitaratu eta biharamunetik hasita.
- ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA, Nafarroako Auzitegi Nagusiko arlo bereko salan, BI HILABETEKO EPEAN, oinarri hauek argitaratu eta biharamunetik hasita.
- GORA JOTZEKO errekurtsua, Nafarroako Auzitegi Administratiboan. Errekurtsua Auzitegiko Erregistroan aurkeztu beharko da, HILABETEKO epean oinarri hauek argitaratu eta biharamunetik hasita.

14.- Datuen babesa

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, jakinarazten dizugu deialdi honen harira biltzen diren datu pertsonalak Altsasuko Udalaren titulartasuneko fitxategi informatizatu batean sartu ahal izango direla (Gartzia Ximenez kalea 36, 31800 Altsasu). Era berean, jakinarazten dizugu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubidea erabiltzeko, Udaleko Erregistro Orokorreara jo beharko dela (Gartzia Ximenezkalea 36, 31800 Altsasu).